**BERMEOKO UDALAK ASEGURU PRIBATUEN BITARTEKARITZA ETA KONTRATAZINO ZERBITZUAK LEHIAKETA EDEGI BIDEZ KONTRATETAKO ERABILIKO DIRAN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.**

## ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ARRISKUAK

### 1. ASEGURATUA

Bermeoko Udala, alkatea, Korporazinoko kideak, erakunde autonomoak eta, oro har, legez udalaren mende dagozan guztiak. Betibe, horreek ekintzak edo ez-egiteak udaleko betekizunak egitean jazo badira eta egin dabezan personak ez badagoz udal jarduerak beteteko zigortuta edo ezgaituta.

### 2. ASEGURUAREN XEDEA

Hitzartutako primea ordaindu ostean, aseguratzaileak hauxe bermatzen deutso aseguratuari: beste batzuei eragindako kalteen, gorputzekoak zein kalte materialak, eta eragozpenen kalte-ordainak ordainduko dauzala, zuzenbidearen arabera beraren erantzukizun zibilekoak badira. Era berean, epaitegietako kostuak eta gastuak zein judizioz kanpokoak be ordainduko dauz, aseguratzaileak erreklamazinoaren aurreko zuzendaritza juridikoa hartzen badau betibe. Halaber, horreen prozeduren ondorio zibilak bermatzeko fidantzak be mailegatuko dauz, polizan hitzartutako difinizinoen, terminoen eta baldintzen eta bertan zehaztutako arriskuaren ondoriozko eskubideen arabera egin be.

### 3. ASEGURUAK ESTALTZEN DAUENA -.

### 3.1 Erantzukizun Zibil Orokorra

Batez be honeen arriskuen ondoriozko erantzukizun zibila egongo da estalita:

- Emandako zerbitzu publikoen jarduera materialaren ondoriozkoa.

- Finka, orube, eraikin, lokal, hesi, semaforo, lorategi eta parke publikoen zein, kanpinen, gizarte, kirol, osasun eta hezkuntza instalazinoen eta antzekoen jaube, errentari edo gozamendun gisa daukazanak.

- Udalaren mende dagozan bide publikoek eta auzo bideek eragin daikiezan kalteak.

- Ur banaketa eta ur eta estolderia hartzeen instalazinoek sortutako kalteak, honeen jatorria hareen jaustean, matxuran edo apurketan dagoanean. Horretarako, instalazinoak diranak Ur hornidura zerbitzuaren udal ordenatzan publiko legez zehaztuta dagozanak dirala ulertuko da.

- Aseguratutako udalak antolatzen dauzan jai, kultur, turismo edo kirol ekintzak eta ekitaldiak, besteak beste, desfileak, berbaldiak, erakusketak, lehiaketak, azokak, etab.,



Errentak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9119 Faxa: 94 688 1563
errenta@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

motordun ibilgailuen (autoak, motozikletak, itsasontziak, aireontziak…) eraskustaldiak, lehiaketak eta lasterketak izan ezik.

- Udal hiltegien eta azoken ustiaketa zuzenaren ondoriozkoak.

- Aseguratuaren ondasunetan edo zerbitzuetan hasitako suteen edo izandako leherketen ondoriozko kalteak.

- Beraren eraikinetan edo instalazinoetan egindako eraikuntza-obretako edo mantentze-, konponketa-, handitze- edo barriztatze-obretako sustatzaile zein etxegile legez, beraren langileakaz egin ezkero eta obra txikien administrazino izakerea badaukie.

- Udaltzaingoaren eta suhiltzaileen jarduna nahiz Babes Zibileko boluntarioen eta kontzientzia-eragozleen zein bestelako boluntarioen jarduna.

- Kontratistek, azpikontratistek eta, oro har, aseguratuaren kontura lan menpekotasun barik diharduenek eragindako kalteengaitik aseguratuak euki daiken erantzukizun zuzena, solidarioa edo subsidiarioa.

- Jagoletza eta segurtasun zerbitzuaren ondoriozkoak, baita armak erabili behar badira be.

- Udal zerbitzuek antolatutako udalekuen edo bestelako jardueren zein kanpainen ondoriozkoak.

- Udal sastartegien eta sastar-batzeko zerbitzuaren ondoriozkoak.

- Suteak amatetako zerbitzuetan laguntzeko eta sua amatetako jarduereagaz zerikusirik ez daukien personei eta ondasunei eragindako kalteen ondoriozkoak.

- Salbuespenetan jarritakoa partzialki baliogabetuta, bere behargin batzuek edo beste persona batzuek motordun ibilgailuak erabilterakoan beste batzuei eragin deikieezan kalteak dirala-eta aseguratuak euki daiken erantzukizun zibila estalita geratuko da, aseguratua ez bada horreen motordun ibilgailuen jaubea edo edukitzailea.

- Atal honetan aurreikusitako kalte-ordaina honeen baldintzen mende egongo da:

- Ezbeharra jazotean aitatutako beharginak edo hirugarren personak aseguratuak agindutako beharrak edo zereginak egiten ibili izana, aseguruaren xedea dan jarduerearen esparruan ibili izana, hain zuzen be.

- Aitatutako beharginak edo hirugarren personak erantzule zuzen deklarau izana.

- Ezbeharra eragin daben ibilgailuak edo hirugarren personak erantzule zuzen deklarau izana.



Errentak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9119 Faxa: 94 688 1563
errenta@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

- Istripua eragiten daben ibilgailuek ez eukitea eragindako kalteak ordaintzeko bermeak, hau da, automobilen berezko polizen bidez.

- Aitatutako polizen urritasuna deklaratu izana eta kalteak ordaintzeko Legezko Erantzukizun Zibila aseguratuari egoztea.

Dana dala, atal honetan aurreikusten diran bermeak kasu batean baino ez dira sartuko jokoan, hau da, automobilek derrigor harpidetu behar daben Erantzukizun Zibileko Aseguruak arautzeko xedapenetan ezarritako kalte-ordainen mugak gainditzen badira, jagokon polizea harpidetuta izan zein ez izan.

### 3.2 Erantzukizun Zibil Profesionala

- Aseguratuaren Erantzukizun Zibila bermatuta dago beraren jarduera profesionalean (tituludun langile teknikoak) izandako akats edo ez-egite profesionalen ondorioz gorputzeko kalteak, kalte materialak edo eragozpenak eragiten badeutsez hirugarrenei, baldin eta zerbitzuak Korporazinoarentzat eta Korporazinoaren kontura egiten baebilzan.

- Batez be, honeen ondoriozko erantzukizunak egongo dira bermatuta:

- Obra zuzendaritzako eta ikuskaketako jarduerak, edota eraikuntza-proiektuetakoak, muntaketakoak, handitze-obretakoak edo barriztatze-obretakoak. Hala ere, ikuskatutako, proiektatutako, eregitako, muntatutako, handitutako eta barriztutako obretan euretan izandako kalteak ez dira bermatuko.

- Medikuen edo hareen osasun-laguntzaileen jarduna baldin eta larrialdiko sendaketak, enpresako mediku zerbitzuak, Udalaren menpeko langileen eta menpeko izateko hautagaien azterketa klinikoak badira, baita euren jardunerako beharrezkoak diran tresnak erabilita be.

- Korporazinoaren mende dagoan osasun-pertsonalaren jardun profesionala gizarte laguntzako jardueretan (hirugarren adina, ezgaituak, toxikomanoak eta antzekoak).

- Erantzukizun Zibil Profesionaleko estaldura honek harpidetutako beste aseguruetako (derrigorrezkoak zein ez) baldintzen diferentzia edo soberakinak estaltzeko jardungo dau.

### 3.3 Laneko Istripuen Erantzukizun Zibila

Aseguratutako jardueran jazotako istripuak dirala-eta indarreko legeriaren arabera Aseguratuari eskatu dakikeon Erantzukizun Zibila estaltzeko zabalduko da estaldura hau, polizan ezarririko mugak eta hitzarmenak kontuan hartuta. Estaldura honek, zehatz-mehatz, hauxe babestuko dau:

- Erantzukizun Zibil Patronala, hau da, nominan eta Laneko Istripuen Aseguruan altan emonda daukazan beharginek beharrean izandako istripuen ondorioz aseguratuari eskatu dakikeon erantzukizuna, baita aldi baterako edo iraupen mugatuko lan hartu-



Errentak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9119 Faxa: 94 688 1563
errenta@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

emonak daukiezan beharginek, aldi baterako lan enpresen bidez kontratatuek zein lan hartu-emonetik kanpora aseguratuaren mende dagozan beste batzuek izandako istripuengaitik eskatu daiteken erantzukizuna be.

- Beste kontratista batzuek, hareen azpikontratistek edo beste batzuek edo horreen danen mende dagozan beharginek izandako istripuengaitik aseguratuari eskatu dakikeon Erantzukizun Zibila.

Laneko istripuen erantzukizun zibila estaltzeko poliza honetako baldintza zehatzetan biktima bakotxarentzat sublime legez ezarritako kopurua goian aitaturiko balizkoetako edozeinetan izango da ezargarria.

## 4. ESTALDURA GUZTIETATIK BAZTERTZEKO ARRAZOI KOMUNAK

- Aseguratuak edo beraren medekoak gurata edo asmo txarrez egindako ekintzak, edo lege arauak gurata haustearen edo ez betetearen ondoriozkoak.

- Gerra zibilaren edo nazinoarteko gerrearen ondoriozko kalteak, edo herri matxinada edo zalapartaren, terrorismoaren, lurrikaren, uriolen edo ez ohiko beste gertakari batzuen ondoriozkoak.

- Edozein zigor edo isun ordaintzea.

- Polizan frankizia legez ezarritako diru-kopurua baino txikiagoak diran ezbeharrengaitiko kalteak.

- Erabilteko edo gozamenerako, manipuletako, eraldatzeko, konpontzeko, jagoteko, gordeteko edo garraiatzeko aseguratuari fidatu, laga edo errentan emon jakozan ondasun higigarrietan edo higiezinetan sortutako kalteak, baita beraren jaubetzakoak diran edo kontrol eremukoak diran ondasunetan sortutakoak be.

- Motordun ibilgailuen erabilerearen eta zirkulazinoaren ondorioz sortutako kalteengaitiko erantzukizunak, baldin eta horreek kalteak motordun ibilgailuen erabilerearen eta zirkulazinoaren araudiak arautu behar badauz.

- Erreakzino eta Erradiazino nuklearrak edo edozein kutsadura erradioaktibok eragindako kalteak, arlo horretako legedi zehatzean jasota egon zein ez.

- Aire nabigazinorako gailu edo aireontziren batek eragindako kalteak.

- Hitzarmenen edo akordioen bidez hartutako obligazinoak, hau da, horreek akordioak ez balegoz egongo ez litzatekezan obligazinoak.

- Aseguratuaren mende dagozan beharginen eta pertsonalaren ondasunei eragindako kalteak ordaintzea.



Errentak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9119 Faxa: 94 688 1563
errenta@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

- Aseguru kontratuak babesten dituen gorputzeko kalteen zein kalte materialen ondoriozkoak ez diran galera ekonomikoak, ezta polizeak babesten ez dauzan gorputzeko kalteen edo kalte materialen ondoriozkoak diran galera ekonomikoak be.

- Gai arriskutsuen garraioa, biltegiratzea eta banaketea (gai toxikoak, leherkorrak, korrosiboak, sukoiak eta erregaiak).

- Aseguratuak hirugarrenen eraikinetan edo etxebizitzetan beharrak egiten badauz, kasu batean be ez dira onartuko ezbeharra jazoterakoan beharrean egoan lekuko gauzei edo ondasunei eragindako kalteak.

- Personak garraiatzeko jarduerearen, portuetako edo aireportuetako eta meategietako beharren ondoriozko erreklamazinoak.

- Ordena publikoa asaldatzearen ondoriozko kalteak.

- Aseguratuak babestu behar dauzan personen leialtasunik eza.

- Aseguratutako erakundearen kontura eta aginduz ustiapen industrialetan, obretan, zerbitzuetan, irakaskuntza jarduëretan edo profesionaletan dabilzan persona fisikoen edo juridikoen erantzukizun zibil zuzena, hau da, instalazinoak eregiten eta jagoten, ekitaldi publikoak antolatzen, pirotekniako jarduëretan, azokako salmentetan, sastarrak eta hondakinak batzen edo lantzen eta antzeko jarduëretan dabilzanen erantzukizun zibil zuzena.

- Aseguratuak sustaturiko obretan, beraren parte hartzea daukien obretan, proiektu egile, zuzendari edo ikuskatzaile legez ibili dan obretan edo, oro har, berak garatutako beharren xedea dan obretan edo instalazinoetan izandako kalteak, bai exekuzino sasoian bai amaitu eta gero.

- Lehiaketa bateko parte hartzaileek izandako kalteak, amateurrak zein profesionalak.

- Ohiko zezen ikuskizunetan (entzierroak, soka-muturra etab…) modu aktiboan parte hartzen daben personek izandako kalteen ondoriozko erreklamazinoak, profesionalak zein afizionatuak izan.

- Uharkak, urtegiak eta antzekoak eukitea.

- Beste persona batzuei eragindako kalteen ondoriozko erreklamazinoak, hala nola, honeengaitik:

- Aseguratuak ekoitzitako, banatutako edo merkaturatutako produktu akasdunak, entregau eta gero.

- Aseguratuak egindako beharrak, obrearen harrerea eginda badago.

- Aseguratuak egindako beharrak, prestazinoa onartuta badago.



Errentak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9119 Faxa: 94 688 1563
errenta@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

- Airearen, lurreko uren, itsas uren edo lurpekoen, lurraren eta lurpearen eta, oro har, ingurumenaren egoerearen perturbazino zuzenaren edo zeharkakoaren ondorioz sortutako kalteengaitiko erantzukizuna; honeek eragindakoa bada:

- Gai kutsagarrien isuriak, injekzinoak, metaketak, ihesak, hustuketak, jarioak edo iragazketak.

- Erradiazinoak, zaratek, dardarek, usainek, beroak, tenperatura aldaketek, eremu elektromagnetikoek zein bestelako uhinek.

- Sute baten edo leherketa baten ondoriozko ke toxikoak edo kutsagarriak.

Laneko Istripuen Erantzukizun Zibiletik kanpora geratzen diranak

- Laneko istripu gisa kalifiketan ez diran jazoerengaitiko erantzukizuna.

- Laneko istripuen edo gaixotasun profesionalen balizkoetarako ezarritako hitzarmen sektorialen edo partikularren ondoriozko kalte-ordainak, errekarguak edo hobakuntza boluntarioak.

- Beraren lana egiterakoan beharginak hartzen dauzan gaixotasun profesionalen edo ez-profesionalen ziozko kalte-ordainak eta asistentzia gastuak, eta miokardio infartuak, tronbosiak, garuneko odoljarioak eta antzeko etimologia daukien gaixotasunak.

- Edozelako isunak eta zigorrak, eta zigor-izakerako legerian ezarritako prestazinoetako errekarguak.

- Kontratuko obligazino orokorrak ez beteteagaitik enpresaburuari egindako erreklamazinoak, gorputzeko kalterik ez badago.

- Kalte materialen ordainketak.

- Aseguru kontratu honetan aseguratu izakerarik ez daukien kontratisten eta azpikontratisten erantzukizunak.

## 5. DEFENTSA GASTUAK ETA BERME ZIBILAK

Erreklamazinoaren xedea aseguru kontratu honetako estalduren artean badago honeek be bermatuta egongo dira, baina aseguratutako kopurua izango da muga:

- Prozedurako ondorio zibilak bermatzeko eskatzen diran berme judizialak ezartea.

- Kostu judizialak. Aseguratzaileak emon behar dauen kalte-ordainaren eta Aseguratuak ezbeharrean daukan erantzukizunaren zenbateko osoaren arteko proportzino berean ordainduko da.

- Aseguratzaileak kaltedunaren erreklamazinoaren aurreko zuzendaritza juridikoa hartuko dau, eta beraren kontura izango dira sortuko diran defentsa gastuak.



Errentak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9119 Faxa: 94 688 1563
errenta@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

Aseguratuak behar dan laguntza guztia emon beharko deutso Aseguratzaileari zuzendaritza juridikoan.

- Aseguratuak beraren defentsea izentetan badau, beraren kontura izango dira gastu judizial guztiak.

- Aurrerago aitaturiko prestazinoak, halaber, Aseguratuaren aurkako prozesu kriminaletan be ezarri ahal izango dira, baldin eta aseguratutako jarduerea betetean sorturiko arrazoiren bategaitik bada eta aseguratua ados badago. Aseguratuak beraren defentsea izentetan badau, beraren kontura izango dira horregaitik kontzeptuagaitik sortutako kostu eta gastu guztiak.

- Aseguratuaren aurkako prozesu judizialetan epai kondenatzailea emoten bada, Aseguratzaileak jagokon auzitegi nagusian errekurtsoa aurkeztu behar dan ebatziko dau; errekurtsoa ipintea ez dala egokia uste badau, halan jakinarazoko deutso interesatuari, eta berak erabagiko dau ipini gura badau, baina beraren kontura. Azkenengo kasu horretan, errekurtsoaren ondorioz Aseguratzailearen interesen aldeko epaia emongo balebe, hau da, beraren konturako kalte-ordaina txikituko balitz, horrek errekurtsoak sortutako gastuak bere pentzura hartu beharko dauz derrigor.

- Aseguratuaren eta Aseguratzailearen artean gatazkaren bat sortuko balitz, hau da, ezbeharrean aseguratzaileak aseguratuaren kontrako interesei eutsi beharko baleutse, Aseguratzaileak jakinarazo egingo deutso, daukien premineagaitik, defentsarako egin behar diran urratsak egiteari kalte egin barik. Kasu horretan, zuzendaritza juridikoa aseguratzailearen esku ixtea edo beraren defentsea kontratetea erabaki leike aseguratuak. Beste nonori emoten badeutso, Aseguratzaileak zuzendaritza juridikoko gastuak ordaintzeko obligazinoa eukiko dau, baina 6.010,00 euroko mugeagaz.

- Parte zibilean lagun arteko akordioa egon bada, aukerakoa izango da parte kriminaleko defentsea be Aseguratzailearen esku ixtea, eta defendituaren aurretiazko baimena behar da.

GASTUAK ORDAINTZETIK LIBRATZEA:

- Polizeak aseguratutako diru kopurua salbuetsita dago aitatutako gastu judizialengaitiko edozein murrizketetatik, baldin eta horreek gastuak, ordaindutako kalte-ordainari gehitu ezkero, ezbeharraren mugea gaindituko balebe, betibe espainiar Estatuko auzitegien aurrean aurkeztutako ekintzak badira.

- Estaldurearen lurralde eremua berariaz zabaltzea harpidetu ezkero, eta ekintzea atzerriko auzitegietan egiten bada, gastuak ordaintzetik libratzeko baldintzea ez da ezarriko, eta ezbeharretarako aseguratutako kopuruaren barruan geratuko dira. Eta horixe izango da, kasu guztietan, Aseguratzaileak ordaindu beharko dauen gehieneko zenbatekoa.

## 6. LURRALDE EREMUA



Errentak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9119 Faxa: 94 688 1563
errenta@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

Polizearen estaldureak Espainiako jazoerak eta jurisdikzino espainiarraren aurrean egindako erreklamazinoak baino ez dauz babestuko, eta espainiar Estatuan indarrean dagozan lege xedapenen arabera erantzukizunak edo bestelako obligazinoak eragiten badabez.

**7. DENPORA EREMUA**

Aseguru-kontratuak eragina izango dau, lehenengoz, 2010eko urtarrilaren 1eko zero ordutik aurrera jazoriko kalteengaitik, horreen kalteen erreklamazinoa Aseguratzaileari sinesgarriro jakinarazo bajako polizea indarrean dagoan bitartean edo kontratua amaitu eta hurrengo 24 hileen barruan jakinarazo ezkero, eta kontratua luzatu bada, azkenengo luzapena amaitu aurretik jakinarazo ezkero.

**8. KALTE-ORDAINAREN MUGEA**

Ezbehar bakotxeko gehieneko kalte-ordaina 600.000,00 eurokoa da. Laneko Istripuen estaldurarako gitxienekoa, barriz, 90.150,00 eurokoa izango da biktima bakotxeko.

**9. FRANKIZIA**

Frankizia orokorra, gehienez, 1.500,00 eurokoa izango da ezbeharreko.



Errentak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9119 Faxa: 94 688 1563
errenta@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

**KALTE MATERIALAK, SUTEAK ETA OSOGARRIAK. LAPURRETEA ETA ESPOLIAZINOA**

## 1. ASEGURATUTAKO ONDASUNAK

Eraikinak eta barruko gauzak oro har; hau da, BERMEOKO UDALAREN jaubetzako makinak, altzariak, instalazinoak eta izakinak, baita dana dalako tituluaren bidez beraren jaubetzakoak diran guztiak be. (Erantsia)

Eraikinak

Eraikuntza nagusi edo osagarri guztiak eta horreen instalazino finkoak (ura, gasa, elektrizidadea, berokuntzea, hozkuntzea eta eraikinetako berezko guztiak).

Jaubetza horizontalaren edo zatiezinaren kasuan eraikineko elementu komunen parte proportzionala be kontuan hartuta dago, baita telebista antenea be, baldin eta balego.

Era berean, eraikinetatik aparte dagozan hesiak eta harresiak be sartzen dira, aseguratuak jaubetza titulua eta beste interes aseguragarriren bat badaukaz.

Eraikinen balioan eraikinaren sendotasunerako, apaingarrirako, higienerako eta erosotasunerako dagozan instalazino danen balioa be kontuan hartuko da.

Edukina

- Ondasun higigarriak edo tresna profesionalak, bulegokoak, merkataritzakoak edo industriakoak, makinak eta instalazinoak, erremintak, moldeak, ereduak, planoak, lanabesak; aseguratutako lanbidearen edo jarduerearen berezkoak badira.

- Aseguratutako esparruan edo haren mendeko lokaletan dagozan altzariak, erropak, etxeko tresnak edo norberaren erabilerarakoak, janariak eta bestelako aurreikuspenak, telebistarako antena indibiduala eta ganerako gauza eta objektu guztiak, betibe aseguratuak jaubetza titulua edo beste interes aseguragarriren bat badauka.

- Jarduerearen xedea dala-eta berezkoak eta beharrezkoak diran lehengaiak, ekoizpen prozesuan dagozan produktuak eta amaituta dagozanak, enbalajeak, ordezko piezak, osogaiak, salmentarako produktuak eta materia osogarriak.

- Beste persona batzuen jaubetzako ondasunak, betibe horreek ondasunak Aseguratutako Erakundearen lokaletan edo esparruan badagoz eta hareek hondatu izanaren erantzulea aseguratua bada, eta aseguratzaile honen zein besteren baten aseguru-poliza bategaz estalita ez badago.

- Motor elektrikoak, koadro elektrikoak, telefono ekipoak eta ikusteko zein entzuteko aparatuak.



Errentak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9119 Faxa: 94 688 1563
errenta@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

- Arte balioa daukien koadroak, eskulturak, liburu bildumak, filatelikoak eta numismatikoak eta, oro har, BERMEOKO UDALAREN jaubetzakoak diran edo haren zaintzapean dagozan artelanak edo obra historiko-artistikoak. Era berean, honeek besteak be ondasun aseguratuak izango dira: dokumentuak, eskuizkribuak, negozio liburuak, mikrofilmak, filmak, moldeak, fitxategiak, artxiboak, planoak eta diseinuak.

Aseguratutako balioa erreprodukzino kostuari jagokona da.

## 2- ESTALITAKO ARRISKUAK

Kontratu honetan ezarritako mugen barruan, aurrerago aitatuko diran arriskuen ondorioz aseguratutako ondasunetan zuzen-zuzenean izandako kalteak edota galerak ordainduko dauz Aseguratzaileak, kontratauriko berme osogarriak barne, baita horreen ondorioz sortutako kalte ekidinezinak be.

**- SUTEA**

**- OINAZTARRIA - LEHERKETEA**

**- KRISTALAK ETA BEIRAK APURTZEA.**

**- ELEKTRIZIDADEAGAITIKO APARAILU ELEKTRIKOEN KALTEAK**

<u>Edukitzailea</u>: Aseguratutako establezimentuko leihoetan, banaketa edo pasoko ateetan, kanpoko zein barruko itxitura manparetan edo hormetako landatuetan behar dan moduan ipinita dagozan kristaletan, beiretan, espiluetan eta errotuluetan ezbeharrez izandako hausturen ondorioz izandako kalteak, baita establezimentuko parte diran higiene-ontzi finkoetan izandako kalteak be, ipinteak eragiten dauzan gastuak barne. Ezbehar bakotxaren gehieneko mugea 4.000 eurokoa izango da, ezelango neurri proportzionalik ezarri barik.

<u>Edukina</u>: Hormetan eskegita dagozan kristaletan eta beiretan, edota espiluetan (altzarietako parte izan ez arren be) jazoriko ezbeharrezko hausturek eragindako kalteak. Ezbehar bakotxaren gehieneko mugea 4.000 eurokoa izango da, ezelango neurri proportzionalik ezarri barik.

Halanda be, altzarietan apurturiko pieza bakotxaren gehieneko kalte-ordaina 2.000 eurorena izango da.

<u>Kanpoan geratuko dira</u>:

. Harramazkadak, urratuak, altzatuak edo azaleretako nahiz espiluetako beste narriadurak.

. Lanparetako, kristalerietako, ontziterietako eta etxeko tresnetako kristaletan, beiretan eta espiluetan, apurketen ondorioz, izandako kalteak, eta apaindurarako objektuetan.



Errentak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9119 Faxa: 94 688 1563
errenta@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

- **BERMEAK ZABALTZEA**: MUGEA %100

Bermeak Zabaltzea izendapenaren barruan honeek dagoz bermatuta:

- BANDALISMO EKINTZAK EDO ASMO TXARREZ EGINDAKOAK.

- EKINTZA ISKANBILATSUAK ETA HUELGAK.

- HAIZEA, EURIA, TXINGORRA, EDURRA.

- URAK ERAGINDAKO KALTEAK.

URAK ERAGINDAKO KALTE MATERIALAK, ur-ihesen ondorioz edo balbulak, txorrotak eta pasoko giltzak huts egiteagatik edo txarto dagozalako.

EZBEHARREZKO ISURIEN ondorioz urak eragindako kalteak, hau da, aseguratuaren zein beste batzuen instalazino edo hodi finkoetako isurien eraginez, edo etxetresna elektrikoen isurien ondoriozkoak. Era berean, baita iragazketen ondoriozkoak eta balbulak, txorrotak edo pasoko giltzak ez ixtearren edo txarto dagozalako eragindakoak be.

EDUKITZAILEA berme honen barruan aseguratuta egongo da eta aseguru-etxeak matxura topetako eta ezbeharra eragin daben hodi matxuratuen partea barriz ipinteko edo konpontzeko gastuak be ordainduko dauz, baldin eta horreek finkoak badira eta aseguratutako lokalarenak baino ez badira. Horretarako, aseguratuarenak baino ez diran hoditeriatzat hartuko dira lotura gunetik (baina hori kanpoan itxita), hoditeria orokorretik edo komunitariotik hasi eta aseguratutako lokala baino zerbitzatzen ez dabenak, eta beraren muga edo eremu pribatiboaren barruan dagozanak.

KANPOAN GERATUKO DIRA:

- Lurpeko uren edo ur geldien eta itsasoko uraren iragazketak, ibaiek, itsasadarrek, lakuek, uharkek, ubideek, erretenek edo estolderiek ganez egiten badabe, eta prezipitazinoen ondorioz sortutako iragazketek edo ituginek zuzenean zein zeharka eragindako kalteak.

Hoditerien barruan korrosinoagaitik, zahartzeagaitik, instalazinoak ez jagoteagaitik edo zikinkerien sedimentazino gradualagaitik sortutako matxurak topetako eta konpontzeko gastuak eta kalteak. Baita etxetresna elektrikoak, higiene-ontziak eta osogarriak, balbulak, txorrotak edo pasoko giltzak, kutxetak edo pozu-saneamentuko sare horizontaleko beste edozein elementu, erradiadoreak edo berokuntza nahiz hozkuntza aparatuak konpontzeko gastuak eta kalteak be.



Errentak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9119 Faxa: 94 688 1563
errenta@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

- Hodiak edo hoditeriak hozteagaitiko kalteak, baita arrazoi hori dala-eta matxurak topetako eta konpontzeko kalteak be.

- Edozein eratako zeharkako kalteak edo ondoriozkoak, baita ezbeharrak kaltetu ez dauzan materialak berrezartea be, ezbeharrak apurtu dauzan materialen ezaugarri bereko materialik ez dagoalako berrezarri behar izan badira be.

- Behearen ganetik 10 zentimetro baino gitxiagora egozan merkantzietako kalteak, altuera handiagoan balegoz be kalteak bardin-bardin izango leukiezan kasuak salbu.

Bazterketa hau ez litzateke ezargarria izango horreek merkantziak, daukiezan ezaugarriengaitik, ezin izango balira apaletan edo paletetan ipini.

- Eraikinean eraikuntza eta barriztatze beharrak egiten dabilzala sortutako kalteak, ezbeharra horreen obren ondoriozkoa bada.

- KEA

- IBILGAILUEN TALKAK

- AIREONTZIAK JAUSTEA

- SOINU UHINA

- ITZALKETA EKIPOETAKO IHESAK

- LAPURRETEA ETA ESPOLIAZINOA

Aseguratutako ondasunen ebasketearen ondoriozko kalteak, LAPURRETEAREN eraginez, eta JAZOERA horren edo horretarako saiakerearen eraginez aseguratutako ondasunetan eragindako KALTE MATERIALAK.

LAPURRETA legez, lege tipifikazinoaren arabera, aseguratutako ondasunez beste persona batzuk legez kanpo jaubetzea ulertu behar dogu, benetako jaubearen gogoz kontra, hau da, horreek gauzak dagozan lekuan edo lokaletan indarra erabilita, edo larderia edo biolentzia erabilita gauzok daroezan personen kontra.

- Kutxa gotorretan gordetako ondasunak, 6.015 euro

- Aseguratutako establezimentuaren barruan gordetako ondasunak, 605 euro

- Eskudirua edo txekeak ostea, 6.015 euro

KANPOAN GERATUKO DIRA:



Errentak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9119 Faxa: 94 688 1563
errenta@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

- Merkataritza efektuak, loteria txartelak, balore higigarriak, tituluak, eskriturak eta, oro har, edozein eratako dokumentuak, honeetan Baldintza Orokorretan beren-beregi aurreikusitako balizkoetan izan ezik.

- Perlak, harribitxiak eta metal preziatuak. - Edozelako bitxiak eta apaingarriak, hau da, norbera apaintzeko urrezko, zidarrezko edo platinozko piezak, perlakaz edo harri preziatuakaz zein horreek barik, honeetan Baldintza Orokorretan beren-beregi aurreikusitako balizkoetan izan ezik.

- Eskudirua, txekeak, ordaindukoak, kreditu txartelak, zordunketa txartelak eta ordainketa txartelak, aurreordainketa telefonikoko txartelak, erabilteko diru-balioa daukien txartelak eta antzeko txartelak, posta zigiluak, tinbreak, efektu tinbredunak eta edozelako bildumak, honeetan Baldintza Orokorretan beren-beregi aurreikusitako balizkoetan izan ezik.

- Motordun ibilgailuak, aseguratutako arriskuaren jarduera nagusia horreek ibilgailuak konpontzea, jagotea edota horreen apopilotzea ez bada.

- Lursailak, lursail horretan edo haren ganean dagoan ura edo beste edozein substantzia barne, eta ha egokitzeko eta aldatzeko gastuak.

- Landarak, bedarrak, zugaxkak, zugatzak eta uztak, barruetako landara apaingarriak izan ezik edo Aseguratuaren jarduerearen xedearen izakinak ez badira.

- Aireontziak eta itsasontziak, aseguratutako arriskuaren jarduera nagusia horreek konpontzea, jagotea edota horreen apopilotzea ez bada.

- Bizirik dagozan animaliak, aseguratutako arriskuaren jarduera nagusiaren xedea ez badira.

**3- KAPITALEN KONPENTSAZINOA**

Aseguratutako kapitaletako edozeinetan dagozan kapital soberakinak kapital gabezia daukien aseguratutako kopuruetara bideratuko dira.

**4- BALORAZINO ERISPIDEAK**

Birjarpen Baliotik Barrirako erispidea ezarriko da.

**5- ARAU PROPORTZIONALA INDARBAKOTZEA**

Aseguratzaileak uko egite deutso baldintza orokorretan aurreikusitako arau proportzionala ezarteari, eta Aseguratuak polizan adierazotako balioak urtero eguneratzeko konpromisoa hartzen dau.

**6- FRANKIZIA**



Errentak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9119 Faxa: 94 688 1563
errenta@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

- 300 euroko frankizia bat ezarriko da ezbehar bakotxerako suteen eta arrisku osogarrien bermean.

- 300 euroko frankizia bat ezarriko da ezbehar bakotxerako urak eragindako kalteen bermean.

- 100 euroko frankizia ezbehar bakotxerako ekipo elektronikoen kalteen bermean

**7- ASEGURATUTAKO KOPURUAK**

1- Kontratua sinatzerakoan hauxe da aseguratutako kapitalen kopuru osoa:

- Edukitzailea: **37.389.355,27 euro**

- Edukina: : **7.142.542,15 euro**

2- Kontratua luzatzen dan hurrengo urteetan aseguratutako kapitalak automatikoki gaurkotuko dira KPI aplikatuta.

**8- EKIPO ELEKTRONIKOAK**

Korronte anormalen edo zirkuitulaburren ondorioz honeetan eragindako kalte elektrikoak: instalazino elektrikoan, elektrizidadea banatzeko edo eraldatzeko makinetan (transformadoreak, aginte- eta kontrol-koadroak), makinetan, energia elektrikoa sortzen daben edo behar daben aparatuetan eta motorretan, horreen instalazinoetan eta osogarrietan. Horreek kalteak elektrizidadeak edo oinaztarri batek sortu badauz betibe, baita garrik eragin ez badau be. Aseguratutako ondasunen erabilera edo higadura normalak, balio-galera gradualak, berezko akatsak edo kontserbazino akastunak eragindako kalteak izan ezik.

Baina, horreek aparatuek edo ekipoek daukiezan funtzionamentu akatsakaitik sortutako kalteak ez dira aseguratuta egongo.

**9- BERME GUZTIETAKO BAZTERKETA KOMUNAK**

a) Euren fermentazinoak edo bat-bateko errekuntzeak aseguratutako ondasunetan eragindako kalteak.

b) Beroaren ekintzaz edo berokuntza aparatuak zuzenean edo zeharka ikutzeagaitik sortutako kalteak, edo aire girotuko aparatuak ikutzeagaitik, edo argiteriak eraginda, edo etxeek, edo tabako-erretzaileen istripuakaitik edo etxeko istripuakaitik, baita aseguratutako objektuak eurak bakarrik sutara jausten badira, horreek jazoerak sute bat dagoalako jazoten ez badira edo sutea adierazotako arrazoiakaitik sortzen bada.

c) Ebasketea.

d) Zarratu barik edo itxiera txarto egon dalako ateetatik, leihoetatik edo beste edegigune batzuetatik sartutako urak, edurrak, hareak edo hautsak eragindako kalteak.



Errentak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9119 Faxa: 94 688 1563
errenta@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

e) Apurka-apurka sorturiko ituginak, iragazketak, ugertzeak, umeltasunak zein kondentsazinoak

f) Izozteek eragindakoak.

g) Naturako fenomenoren baten ondorioz aseguratutako establezimentuaren edukina kaltetzen danean, haize librean badago, material malguakaz, loneagaz edo plastikoagaz tapauta egon arren, baita eraikuntza edegietan badagoz be.

h) Establezimentu bateko maizterrek edo beste okupatzaile batzuek (legezkoak zein legez kanpokoak) eragindakoak.

i) Aseguratutako establezimentuaren fatxadetan egindako pintadak, inskripzinoak, inkauriko kartelak eta antzekoak.

j) Terrazetan, etarteetan, lorategietan, aparkalekuetan edo, oro har, haize librean edo establezimentutik kanpora dagozan ondasunak zein objektuak.

k) Aseguratuaren doloz edo erruz jazotako kalteak edo galerak.

l) Zeharkako galerak eta ondoriozko kalteak oro har, polizeak estaltzen dauen kalteren baten ondorioa izan arren be bai.

m) Aseguratutako ondasunetan sortutako kalteak establezimentua babes barik, abandonauta, jagon barik edo jarraian hirurogei egun baino gehiago geldi egon ezkero.

n) Elektrizidade indarrik, erregairik, urik, lurrunik edo hozgarririk ez eukitearren sorturiko kalteak eta galerak, dana dalako arrazoiakaitik. Horreetako jazoeretako batek kalteak polizearen bermeek estaltzen daben aseguratutako ondasunen batean eragiten dauzanean.

o) Aseguratutako ondasunen berezko akatsak eragindako kalteak eta galerak.

p) Aseguruen Konpentsazino Partzuergoak estaltzen dauzan jazoerak, baita Botere Publikoak “Hondamendia edo Zoritxar Nazionala” izentetan dauzanak be.

q) Ez ohiko edo hondamendi izakerea euki arren, Aseguruen Konpentsazino Partzuergoak, beraren araudian eta jazokerearen datan indarrean dagozan xedapen osogarrietan ezarritako arauren bat ez beteteagaitik, Aseguratuaren eskubidearen eragingarritasuna onartzen ez badau ezbeharren batean, baita horrek Erakundeak ezarritako gabealdian jazotako ezbeharrak be.

r) Asentatzeek, lur-mugimenduek (lur-joteak, lur-jausiak edo lurteak) eragindako kalteak, baita horreen hurreko edo asagoko arrazoia aitatutako bermeetako batean estalita dagoan arriskuren bat bada be.

s) Aseguratutako ondasunen diseinuzko edo eraikuntzako errakuntzak.



Errentak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9119 Faxa: 94 688 1563
errenta@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

**10. ASEGURATUTAKO ONDASUNAK: Polizan zehaztuta ez dira agertuko, baina eskaintzak aurkezteko balio dauan zerrenda honako hau da:**

| Ondasun zk | ERAIKINA | KOKAPENA | ZERBITZUA | 2014rako ERAIKINAren balioa | 2014rako EDUKIaren balioa | DANATARA 2014rako |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Udaletxea | Arana tar Sabin enparantza | Administrazio bulegoak | 540.681,88 | 138.987,32 | 679.669,20 |
| 2 | Udal bulegoak | Intxausti -2 | Administrazio bulegoak | 823.901,10 | 34.331,32 | 858.232,42 |
| 3 | Osasun eta Ongizate Patronatoko bulegoak | Areilza | Administrazio bulegoak | 314.813,85 | 17.145,47 | 331.959,33 |
| 4 | Biltegi-garajea | Areilza | Kale-garbiketa | 28.585,43 | 16.521,69 | 45.107,13 |
| 5 | Musika Eskola | Irakaskintza | Musika eskola | 964.646,03 | 140.016,86 | 1.104.662,89 |
| 6 | Liburutegia | Lamera | liburutegia | 1.116.635,79 | 362.501,74 | 1.479.137,53 |
| 6 | Liburutegia | Lamera | Turismo bulegoa | | 9.153,01 | 9.153,01 |
| 6 | Liburutegia | Lamera | Baleontziko denda | | 2.243,59 | 2.243,59 |
| 7 | Artza frontoia | portua | kirola | 696.783,72 | | 696.783,72 |
| 8 | Erremedio kaleko lokala | Erremedio | Bulego materialen biltegia | 19.652,69 | 13.044,00 | 32.696,69 |
| 9 | Askatasun Bideako lokala | Askatasun Bidea 23-behea | brigada | 35.731,61 | | 35.731,61 |
| 10 | Askatasun Bideako lokala | Askatasun Bidea 23 tartesolairua | Gizarte taldeak | 111.663,58 | 15.751,89 | 127.415,47 |
| 11 | Antzinako abere-hiltokia | Arkike Bidea | kirol taldeak | 381.195,35 | | 381.195,35 |
| 12 | Frantzisko Deuna Eskolak | Atalde | hezkuntza/Herri Babesa | 5.812.064,24 | 248.528,58 | 6.060.592,81 |
| 13 | Euskaltegiak | Atalde 17 | Euskera eta kultura | 196.526,25 | 6.728,99 | 203.255,24 |
| 14 | Arraun Elkartearen egoitza | Matxikorta kaia | kirola | 568.327,94 | | 568.327,94 |
| 15 | Talako Andra Mariko lokala | Talako Andra Mari | Osasun Patronatoko ekintzak | 86.880,03 | | 86.880,03 |
| 16 | Itxasgane futbol zelaia | Matxitxako bidea | kirola | 857.217,69 | | 857.217,69 |
| 17 | Hilerriko kapila eta biltegia | Matxitxako bidea | hilerria | 419.210,12 | 8.444,88 | 427.655,00 |
| 18 | Areneko frontoia | Arene Auzoa | kirola | 277.233,10 | | 277.233,10 |
| 19 | Kioskoa | Arana tar Sabin enparantza | kultura | 26.798,88 | | 26.798,88 |
| 20 | Kioskoa | Lamera | kultura | 78.408,90 | | 78.408,90 |
| 21 | Talako kantina | Talako Andra | kantina | 33.498,26 | | 33.498,26 |



Errentak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9119 Faxa: 94 688 1563
errenta@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Mari | | | | |
| 22 | Aritzatxuko kantina | Aritzatzuko hondartza | kantina | 14.292,38 | | 14.292,38 |
| 23 | Gibeleko garajea | Gibele-Labea | sastar-batzea | 53.598,44 | | 53.598,44 |
| 24 | Basoetxea | Almike auzoa | kultura | 60.067,02 | 1.344,16 | 61.411,18 |
| 25 | Basoetxea | Arene Auzoa | kultura | 89.498,28 | 1.631,10 | 91.129,38 |
| 26 | Lanbide Hastapenaren egoitza | Atalde | hezkuntza / Itsuki irratia | 1.547.781,34 | 29.648,61 | 1.577.429,95 |
| 27 | Azoka/Begargintza/Artxiboa | Zubiaur tar kepa 26 | Azoka eta parkinga | 5.308.667,81 | 4.600,87 | 5.313.268,68 |
| 28 | Azoka/Begargintza/Artxiboa | Zubiaur tar kepa 26 | Behargintza | | 54.872,48 | 54.872,48 |
| 29 | Azoka/Begargintza/Artxiboa | Zubiaur tar kepa 26 | Artxiboa (kultura ondarea) | | 180.266,50 | 180.266,50 |
| 30 | Bake epaitegia | Askatasun bidea 25-1.C eta D ateak | Bake epaitegia | 56.006,74 | 16.822,48 | 72.829,22 |
| 31 | Landabasoko pabiloia | Landabaso Industrialdeko A eremua | brigadaren biltegi-garajea | 560.067,43 | 201.869,75 | 761.937,17 |
| 32 | Almikeko komunak | Almike auzoa | komunak | 2.100,12 | | 2.100,12 |
| 33 | Kiroldegia | Arene Auzoa | kirola | 3.358.830,00 | 291.098,60 | 3.649.928,60 |
| 34 | Zaharren Egoitza | Tonpoi bidea | Gizarte Ongi-Izatea | 874.768,92 | 269.159,66 | 1.143.928,58 |
| 35 | Portaleko klaustroa | Prantzisko Deuna Atea | Klaustroa | 184.380,33 | | 184.380,33 |
| 36 | Kultura aretoa "Nestor Basterretxea" | Lamera ( kasinoa) | kultura | 1.466.920,18 | 188.411,77 | 1.655.331,94 |
| 37 | Hermanuetako eraikina | Zubiaur tar kepa | kultura: Hizkuntza eskola eta taldeak | 2.180.298,39 | | 2.180.298,39 |
| 38 | Hermanuetako igerilekua | Zubiaur tar kepa | erabilera barik | 444.601,03 | | 444.601,03 |
| 39 | Gizarte eta Kultura Etxeko | Aurrekoetxea 27 | kultura | 4.989.553,09 | 50.813,69 | 5.040.366,78 |
| 40 | Gizarte eta Kultura Etxe azpiko partzelak | Irakaskintza | garaje partzelak | 313.490,80 | | 313.490,80 |
| 41 | Berh@z bulegoa eta AITB saila | Ertzila 6-8 behea | Administrazio bulegoak | 380.283,70 | 56.624,32 | 436.908,02 |
| 42 | Zarragoitxiko igogailua | Kurtxio/Zarragoitxi | igogailua | 982.119,65 | | 982.119,65 |
| 43 | "Ormaza" fabrika | Askatasun bidea 34 | Bizkaiko kontserben zentroa | 558.341,48 | | 558.341,48 |
| 44 | Portaleko lokala | Erreten lamera | Konbentuko udal lokala | 207.894,63 | | 207.894,63 |



Errentak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9119 Faxa: 94 688 1563
errenta@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 45 | Ondarraburu 9ko likala | Ondarraburu-9-00 | hutsik | 26.915,96 | | 26.915,96 |
| 46 | Haur Eskola | Tonpoi bidea 5 | Hezkuntza | 122.832,04 | | 122.832,04 |
| 47 | Teodoro Anasagasti 2ko lokala | Teodoro Anasagasti 2 | Morondoko aparkalekurako pasua | 215.589,06 | | 215.589,06 |
| 48 | Ekipo elektronikoak | eraikin ezberdinetan | ekipo elektronikoak | | 279.902,50 | 279.902,50 |
| 49 | Arte obrak/kuadroak | eraikin ezberdinetan | kuadroak | | 4.502.076,32 | 4.502.076,32 |
| | | | | **37.389.355,27** | **7.142.542,15** | |



Errentak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9119 Faxa: 94 688 1563
errenta@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

**MOTORDUN IBILGAILUA ERABILTETIK ERATORRITAKO ERANTZUKIZUN ZIBILA**

**1- ASEGURUAREN XEDEA**

Poliza honen helburua Bermeoko Udalaren jaubetzako ibilgailuak garantizetea da, honeen Baldintza Zehatz eta Orokorren arabera. Horreek ibilgailuak kontratuan sartu edo izentau beharko dira aurretiaz, jarraian ezarriko diran arauen arabera egin be.

**2- ASEGURATUTAKO ARRISKUAK**

Poliza honek estaltzen dauena:

**1. Ibilgailuen Derrigorrezko Erantzukizun Zibila,** bagilaren 28ko 1301/1986 Errege Dekretu Legegileak onartutako Motordun Ibilgailuen Erabilereari eta Zirkulazinoari buruzko Legearen Testu Bateginean eta abenduaren 30eko 2641/1986 Errege Dekretuak onartutako Harpidetza Obligatorioko Ibilgailuen Erabileratik eta Zirkulazinotik eratorritako Erantzukizun Zibilaren eta xedapen osogarrien arabera.

**2. Erantzukizun Zibil Osogarria**, berme muga barik ezbeharretarako, Baldintza Orokorretan ezarritakoaren arabera, honeek izan ezik:

- Hirugarren personatzat hartuko dira ibilgailuetan garraitaturiko persona legez agertzen diran Bermeoko Udaleko legezko ordezkariak, baita udalaren zerbitzura dauden funtzionarioak eta langileak be.

- Poliza honen bidez aseguratutako ibilgailuen artean egon leitekezan ezbeharrak jagokon moduan likidauko dira, euren titularidadea bat eta berbera dala kontuan hartu barik.

**3. Defentsa Penala eta Kalteen Erreklamazinoa,** Polizearen Baldintza Orokorretan ezarritakoaren arabera.

Berme hau ahalik eta ondoen betearazoteko, Bermeoko Udalak berak gura dauzan abogaduak eta prokuradoreak izentau ahal izango dauz berak gura dauenean.

**4. Haizetakoaren eta Kristalen Hausturaren** kontrako aseguru osagarria, osorik apurtzen badira edo parte bat apurtzen bajake barriro jartzea bermatzeko. Berme honetatik kanpora geratuko dira faroak, pilotoak, keinukariak, espiluak eta beirak.

**5. Gidariaren Istripuetarako Asegurua:**

Berme honen eraginetarako, okupatzaile izakerea, behar dan legez baimenduta, ibilgailua gidatzen dabilen personeak baino euz dau eukiko.

Halanda ze, berme honek ez dauz gidari-lagunak edo ibilgailuan garraiatzen dabezan beste personak babestuko.

Honeek dira asegurratu bakotxarentzat estalita dagozan bermeak:

- Heriotzea 44.000 euro.

- Baliaezintasun Iraunkorra 24.500 euro.

- Osasun Laguntzea 30.500 euro.

**6.** Suaren edo leherketearen ondorioz aseguratutako ibilgailuak izandako kalteak, ibilgailua geldi zein martxan egon.

**3- ZIRKULAZINO EREMUA**

